

# ETIKAREN ETA POLITIKAREN ARTEAN BOTEREA ETA ERLIJIOA

## EL PODER DEVORA A LOS QUE LO DETENTAN

A la vista de las posiciones y declaraciones de diversos personajes políticos en los últimos tiempos —concretamente, Jomeini, Muzorewa, Thacher y F. Gonzalez—, el autor hace una reflexión sobre el carácter mítico y religioso del poder, que devora fácilmente a los que detentan el poder político, cuya consecución es la razón de ser de los partidos políticos tradicionales. La derecha trata de justificar y arropar ese poder mediante conceptos religiosos; la izquierda se defiende ante el mismo poder, mediante conceptos éticos.

Pero ese "Poder" siempre permanece en acecho y con todo su dominio y su atractivo, la fuerza de ese poder mítico.

Apaiz politikoak modan daude. Edo... "apaizak politikan" modan dago. Seguru asko bigarren hau hobeto. Azken urteotako demokrazia delakoaren abiada honetan, politikariaren figura oso modan jarri da. Horretarako daude hauteskundeak! Eta apaiz ugari hauteskundeetako burrukatan agertu da; batzuk irabazi egin dute gainera. Eta orain Gordeetan. Kontseilutan, Parlamentutan, Udaletan etab. ditugu.

Agintariak eta bestelako aldizkariak apaiz politikariaren burrukak, garaipenak eta bestelakoak aipatzeko eta harrotzeko aukera izan dute. Hau ez da gertaera berria. Historian zehar beti izan dira apaizak, politikako burruketarako joera izan dutenak. Hala ere, mereziko luke gure artean gertatzen ari den fenomeno honek bere azterketa berezia. hemen ez naiz ni ez hori aztertzen ez eta horretaz eritzirik ematen hasiko.

Baina orain eskaini nahi dudana gogoeta honetan fenomeno hori ere gogora etorri zait.

### LAU IZEN — LAU HITZ

Jomeini, A. Muzorewa. M. Thatcher, F. Gonzalez: lau izen oso urrutiko era lau politikari oso ezberdinak. Boterea, erlijioa, etika, politika: lau hitz nahiko hurbileko eta elkarrekin nahasiak.

Jomeini, erlijio gidaria, politikari bihurtua: Iranen aurrera eramaten ari da bere "iraultza musulmana", aurreko erregimeneko gizonak garbituz, Mahomaren legea ezarri eta petroliaren balioaz baliatuz.

Muzorewa, orain dela aste batzuek, Zimbabwe-Rodesiako hauteskundeak irabazi dituena. Askok oso zalantzapean jarri du hauteskunde horien demokraziaren jatoriasuna; beste askok erabat ukatu. Baina Muzorewa-k agintea eskuratu du, eta bere boterea finkatzeko munduko Estatu indartsuen laguntza eta bedeinkazio bila dabil. Botere eta guzti, Smith arrazista zuriaren


eta beltz iraultzaileen artean jarri da.

Thatcher... Egalaterrado **Degaulle** deitu du batenbatek. Azken hauteskunde bitartez, gehiengo absolutua lortu du, eta oraingoz behintzat lasai xamar bere boterea erabiltzeko modua izango du. S. Frantzisko aipatuz hasi du bere agintaldia. Baina bestetik, zera esan du: Ez dagoela askatasunik, askatasun ekonomikorik gabe. *Liberala da Thatcher; eta aginte-zalea.*

Gonzalez, Felipe. PSOEko Sekretaritzaren generala utzi egin du, txaloen eta malkoen artean. Oraingoz utzi du. Etikaren arrazoiak atera eta aipatu ditu, bere botere politikoa uzteko.

profesionalen helburua boterea (edo agintea) lortzea da. Horren inguruan eta horren bila dabil berez politika tradizionala. Partidu "normal" guztiek joko horretan jokatzen dute. Joko horretan jokatzekeo legeak ezarriak dituzte; onartuak dituzte; eta irabazten saiatzen dira.

Boterea ez da diktadoreen arnasa bakarrik; ez eta multinazionalen eta oligarken premia bakarrik. Alderdi politiko "normal" eta tradizional guztien ametsa ere boterea da. Hori banatzeko mekanismoak, berriz, hauteskundeak dira: alderdiaren burrukoak eta alderdien artekoak. Herriaren ordezkaritza lortzeko mekanismoak dira hauteskundeak. Eta ordezkaritza hori boteretzat



### BOTEREAREN LILURA

"Botere" hitza iparraldean erabiltzen dute batez ere. Frantsesez, "pouvoir" itzultzen dute, "poder". Orain hegoaldeko euskaldunok ere erabiltzen dugu.

Politikazko burrukaren eta politikari

hartzen dute alderdi politiko "normal" eta tradizional guztiek.

Partidu horien eskemetatik eta beraiek ezarritako joko-legetatik kanpo gelditzen dira anarkista, libertario eta asanblearista guztiak. Asanblearismoa zeraren kontra doa: herriaren ordezkaritza partiduaren botere bihurtzearen kontra eta politikazko burruka botere-burruka bihurtzearen kontra

Izatez, boterearen beraren kontrako burruka da asanblearismoa.

Izan ere, nolabaiteko agintea lortu duten partiduak gainditu egiten ditu boterearen indarrak. Indar autonomo bihurtzen da boterea, eta agintea dutenei ere agindu egiten die, bere mekanismo autonometan irentsiz, eta agintea beren eskuetan nahi duten partidu guztiak liluratuz. Agintea eta boterea ez ote berdinak?

## ERLIJIOAREN ITZALA


Aginteak eta botereak gauza berbera adierazten dute itxuraz. Baina iparraldetik etorri zaigun hitz horrek —botereak— badu hegoaldekoontzat indar mitiko baten kutsua. Liluragarria da boterea, agintea- ren bila dabilzan guztientzat.

Boterearen lilura horretatik ihesegitearren edo, eta agintea zuritzeko, politikari- ke sarritan erlijioaren babespera jotzen dute. Boterea bera —indar mitikoa— erlijioz- kotik oso hurbil dabil. Horregatik, boterearen lilurapetik erlijioaren itzalpera pasatzea ez da harritzekoa. Aginte politikoa botere mitikoan estaltzen da: hau erlijioaren jantzi- jazten eta itxuraldatzen da; oinarri bezala ordezkaritza jartzen da: aginteari herriaren- ganako **zerbitzu** izena ematen zaio. Eta kitto!

Jomeinik, Jainkoagandik harturiko misio bezala eskuratu du aginte politikoa eta erlijiozko boterearen eraginez bezala ari da bere iraultza aurrera eramaten. Ezarri nahi duen errepublika teokratikoa ez da, botere mitiko horren gauzatzea besterik.

Muzorewa apezpiku anglikanoa da. Bere erlijiozko itzalaz baliatu da, neurri

handi batez, aginte politikoa eskuratzeko. Eta gobernu arrazistaren eta beltz iraultzaile- en artean irtenbiderik aurkitu ezinik zebilen herriari eginiko zerbitzu aparteko bezala agertzen du bere agintea. Zimbabwe-Ro- desiaren "salbatzaile" bezala agertu nahi du munduaren aurrean.



M. Thatcher, berriz honela mintzatu da bere agintearen asmoa argitu nahian edo "Assisi-ko S. Franziskoren hitz batzu gogoratu nahi nituzke, une honetarako hain egokiak direnak: "Gatazka dagoen le- kura akordioa eraman dezadala nik; zalan- tza dagoenera, fedea eraman dezadala nik; etsipena dagoenera, itxaropena era- man dezadala nik". Hauteskuondeak pasa di- ren honetan, elkarrekin saia gaitzela gure

herria zerbizten eta indartzen".

Herriaren beste salbatzaile eta zerbiz- zari bat! Aginte politikoa eta bote- rearen erlijiozko interpretazioa!


## ETIKAREN BILA

Felipe Gonzalez-ek, PSOE-ko sekreta- ritza uztean eman duen hitzaldian, arrazoin etikoez hitzegin du. Bere aginteari eta agin- tea uzteari sustrai eta oinarri etikoak eman dizkio.

Aginte politikoa dutenen aurrean bo- tere mitikoa ikaragarritzko indarrez, liluraz eta eraginez agertzen da. Eskuindarrek er- lijiozko kontzeptuez zuritzen eta estaltzen duten bezala, ezkerterrek kontzeptu etikoez neurtu nahi izaten dute botere bildurgarri hori. Eskuindarrek eta ezkerterrek, bide ez- berdinetatik, botere berberaren erakar- menetik eta menpetik libratu nahi dute nonbait.

Eskuindarrek, boterea zurituz eta justi- fikaturaz, ordea; ezkerterrek, botere mitikoari neurriak ezarri nahian. Bide honetatik ulertu behar dela uste dut Felipe Gon- zalez—en hitzaldia. Politikaren barruan eta politikarien eredu etiko bat jarri nahi duela esa du. Baina seguru asko, aitormen hori eta guzti, Felipe ez da botere politikoa- ren liluramenetik libratu; eta hilebete batzu barru, PSOEren urrengo Kongresuan, bu- rruka politikoa- ren dinamikak eta mekanikak irentsi- ko du seguru asko, eta boterearen indarra berriz nabarmenduko eta baiez- tatuko da.

Paulo Agirrebaltzategi



TODAS LAS SEMANAS  
SALIMOS AL ENCUENTRO  
Y AL DIALOGO LIBRE CON EL  
PUEBLO DE EUSKADI

COMPRA

EN TU KIOSKO HABITUAL

PUNTO  
Y HORA